

*DBH1.mailako ikasleek euskal ohitura, tradizio eta kulturari buruzko hainbat dibulgazio artikulua idatzi dituzte 2.ebaluazioan. Lan hau da DBH1.mailako 1B gelak lehiaketan parte hartzeko hautatu duena; irrintziari buruzkoa.*

## EUSKAL OIHUA

“**Aiiaiaiaiaiaiaia...**” Euskal Herriko ohitura garrantzitsu bat da irrintzia. Normalean, **poza** adierazteko **oihu luzexka** bat da. Kontuan hartu behar da, postura egokian jartzea komeni dela, bestela, ez delako dagokion bezala aterako. Gustatuko litzaizueke irrintzia oihukatzea? Irrintziaz informazio gehiago jakin nahi duzu?



Irakurri honako testua, eta irrintziako informazio ez berdina jakingo duzu. Hori bai!; arretaz irakurriz gauza gehiagoaz konturatuko zara! “**Aiiaiaiaiaiaiaia...**”

### JATORRIA

Irrintzia **EAE aldetik**, hau da Araba, Bizkaia eta Gipuzkuatik dator zehazki, nahiz eta **Euskal Herri osoan** erabili.



Hasteko, **erdi-aroan** sortu zela esaten da eta **animalia** baten **soinua** imitatzen zela, zehazki, **zaldiaren** soinua. Bestalde, oihu hau seinale emateko erabiltzen zen **komunikazio metodo** bat bezala. Adibidez, **artzainek** asko erabiltzen

zuten animalia bat hartzen zutenean besteei abisatzeko, edo tiro bat entzun eta ea ondo zeuden jakiteko. Gainera, **landa jendeak** eta **gerran** zeudenek ere erabiltzen zuten, ondo zeudela esateko edo galdetzeko. Gaur egun, beste gauza batzuetarako erabiltzen dute. Besteak beste, **festetarako** edo **konpetizioetan** lehiatzeko.

Azkenik, datu berezi bat bezala, **Donostiako estropadak** ikusi ondoren, mundu guztiak **irrintziaren txapelketak** ikustera juten zirela ondo pasatzera.

## SOINUA, HOTSA ETA ERRITMOA

Irrintzia **euskal ohitura eta kultura** da. Irrintzia leku askotan entzuten da. Musika talde askok irrintzia oihukatzen dute. Askotan, panderoarekin entzuten da eta baita perkusioarekin ere. Adibidez; **“NEOMAK”** taldeak askotan egin du nahasketa hori. **Irrintzia entzun daiteke bakarrik, perkusioarekin, edota panderoarekin.**



Egia da, zaila dela irrintzia ongi egitea, eta asko entrenatu behar da mugimenduak argi egiteko. Hasteko, **eroso jartzea gomendagarria** dela esaten da. Lehenengo **“ai, ai”** esan behar da, eta bukatzeko **“ji,ji” indartsu eta ozena.**

## ERABILERA

Irrintzia normalean **poza** edota **bakardade ez falta adierazteko** erabili izan da. **ez zaudela bakarrik**, hau da, **indarra** adierazteko erabiltzen zen. Azkenean, irrintziak **erabilera bakarra** du. Beraz, **gaur egun** ere normalean horretarako erabiltzen da oihu **luzexka** hau.

Aipatu bezala, **poza** edota **indarra** adierazi nahi izatekotan oihuarekin, **ez zen edozein momentutan egiten. Jaietan edo gduetan** egiten zen. **Edozein herriko jaietan** entzun daiteke garrasi hau. **Gaur egun**, azkenean, ez da ohikoena edozein tokitan egitea. Horregatik, normalean lehengo toki berdinetan erabiltzen da.



Irrintzia egin nahi bada, aipatu bezala, ezin da edozein modutan egin. Irrintzia **arrakastatsua** izateko; lehenenbizi, **eskuak gerrian** ipini, **tente-tente** jarri eta **postura egokian** egonda praktikatzen hastea da aholkua. Jarraibideak ongi eginez gero, hobeto ateratzen hasiko da.